



PREBENTZIO ZERBITZUAREN JARRAIBIDEAK

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozesuen oinarrietan jasotzen den bezala, baldintza da Prebentzio Zerbitzura joatea azterketa mediko bat egitera lan-gaitasuna zehazteko eta prozesuan jarraitzeko.

Mediku-azterketara joateko eskaera, kontsulta eta hitzorduaren jarraipena online egin beharko da Interneteko helbidearen bidez <https://www.euskadi.eus/epe-2022-irakasleak-egonkortzeko-salbuespen-prozesua/web01-a2hlang/eu/>. Egonkortzeko lehiaketa-oposizioa eta ohiko lehiaketa-oposizioa >Azterketa medikoa

Hitzordua erreserbatzeko >Sartu NAN/AIZ > hautatu data > hautatu ordua.

Prozesuko hautatuen zerrendan agertzen ez bazara, NANA sartzean, ezingo duzu hitzorduaren eskaera izapidetu. Hautatuta egonez gero, eta hitzordua eskatzen uzten ez baduzu, **TRAMITAGUNE**ren bidez jakinarazi behar duzu – **Gainerako izapideak** –, eta, gaian, adierazi "**Azterketa Medikoa - LEP 2022 Lehiaketa-Oposizioa**".

Hitzorduaren erreserba amaitzean, sms bat eta mezu elektronikoroigarri bat bidaliko zaizkizu.

- **Pertsona bakoitzari zerbitzu mediko bat dagokio osasun-azterketa egiteko;** beraz, zure hitzorduan agertzen zaizunarengana joan beharko duzu. (eskaeraren helbidearen eta zerbitzuaren kokapenaren hurbiltasunaren arabera)
- **Gorde hitzorduaren lokalizatzailea**
Hitzorduaren baieztapena lortu ondoren, gorde hitzorduaren lokalizatzailea, aldaketaren bat egin nahi baduzu.
- **Kontuan hartu hitzorduaren frogagirian jasotako jarraibideak** (mediku-azterketara joateko jarraibide horiek bete behar dituzu)